

Mezara noa



Biltzea
Hitza
Eukaristia
Igortzea



Arbonako elizan, XVII. mendeko Pietà

Eskuetan duzun liburuxka hau, xantza haundi bat da zuretzat. Jesu Kristoren hobeki ezagutzen lagunduko zaitu : haren mezua ikasiko duzu, eta igandetako mezari esker, harekin buruz-buru egingen duzu. Liburuxka huntan aurkituko dituzu :

- *mezako hitz azalduak (esprikatuak)

- *mezako jestuak

- *galderak...

Agian gogo onez sartuko zara mezaren ezagutzan, ezen meza da munduko otoitzik miresgarriena.



Familiak, adixkideak, auzoak, bidaiariak, ezezagunak hemen bilduak dira. Denak etorriak gara, Jesu Kristok gomitaturik.

Apeza aldareratzean, xutitzen gara eta kantatzen dugu.

Apezarekin batean egiten dugu kurutze seinalea.

Apezak : Aitaren, Semearen eta Izpiritu Sainduaren izenean.

Guk : Amen.

Apezak : Jesus Kristo gure Jaunaren grazia, eta Jainko Aitaren maitasuna eta Izpiritu sainduaren batasuna izan bedi zuekin.

Guk : eta zure Izpirituarekin



tzzen gaitu.

Galderak :

Zergatik meza igandetan?

Jesus piztu baita igande batez, Bazko egunean. Geroztik, giristinoek hautatu dute egun hori elgarretaratzeko haren oroitzapenean. Jaunaren Eguna bilakatu da, latinez “dies dominica”, frantseses “dimanche”.

Zergatik meza ospatzen da eliza batean?

Eliza da etxe bat bereziki eraikia giristinoak biltzeko. Baina meza toki askotan zelebratzen ahal da: eskola batean, presondegi batean, pentze batean, eritegi batean.

Apeza meza emateko zergatik beharrezkoa da?

Jaunaren izenean Kristauak biltzeko kargua ukana baitu. Eukaristia ospakizunaren buru da, Jesu Kristoren izenean.

Jestuak :

Xutik izatea :

Jainkoak xutiarazten gaitu, betiko bizia emanez.

Kurutzearen seinalea :

Gure eskuinarekin, kurutze bat egiten dugu kopetan, sabelaren gaineko partean, ezkerreko espaldan eta azkenean eskuinekoan. Horrela, uzten dugu Jainkoaren, Semearen eta Izpiritu Sainduaren bizia gure nortasun osoaz jabetzen.



Kantatzea :

Elgarrekin otoitz egiteko molde alaia da.





Jainkoaren barkame

Jainkoari buruz itzultzen gara. Haren aintzinean aitortzen dugu egin dugun gaizkia eta damu dugu egin ez dugun ongia. Baina Jainkoak ezagutzen gaitu eta barkatzen digu.

Apezak : haurrideak, aitor ditzagun gure **bekatuak**, mixterio sailduak ospatetzeko gai izan gaitzen.

Guk : **Aitortzen** diot Jainko guziz ahaltsuari,

Eta zueri ere bai, nere haurrideri,

Bekatu egin dutala, gogoeta, hitz eta egitez,

Eta **egin beharrak ez eginez**,

Bai bekatore naiz. (*Gure golkoa jotzen dugu*)

Horrengatik eskatzen diotet Andredena Maria beti Birjinari,

Aingeru eta Saindu guzietan, eta zueri ere bai, nere haurrideri,

Otoitz egin dezazuen nere alde Jainko gure Jaunari.

Apezak : **Urrikal** dakigula Jainko guziz ahaltsua, eta gure bekatuak barkaturik, ereman gaitzala betiko bizitzera.

Guk : **Amen**

Apezak : Urrikal, **Jauna**

Apezak : **Kristo** urrikal

Apezak : Urrikal, **Jauna.**

Guk : Urrikal, **Jauna**

Guk : **Kristo** urrikal

Guk : Urrikal, **Jauna.**

Jauna galdegiten dugu.

Hitz azalduak :

Eukaristia :

Grekoz, erran nahi du “eskerrak, grazia ematea”. Meza izendatzeko beste hitz bat da.

Bekatorosa izatea bere buruari aitortu :

Aitortu Jainkoaren amodiotik urruntzen garela.

Kofesatu :

Denen aintzinean adierazi, planteatu bekatoros garela.

Egin beharrak ez egitea :

Egin beharrak ahanzte ala nahitara ez egitea.

Miserikordia :

“miseria” hitzak erran nahi du zorigaitza, dolua eta “kordia”, bihotza.

Jainkoak miserikordia egiten digu gure doluei eta zorigaitzei bere bihotza beti idekitzen baitie.

Amen :

“Ados, bai ados naiz”, hebrear hizkuntzan.

Jauna :

Fededunek Jainkoari ematen dioten izenatarik bat. Girstinoek Jesus «Jauna» deitzen dute sinesten baitute Jainkoaren semea dela eta Aitaren izaite berekoa.

Kristo (edo Mesias) :

Biblian, erran nahi du usain onezko olio batek gantzutu presuna.

Usain onezko olio hori marka bat da : Jainkoak markatu du Jesus misio berezi bat egiteko, mundua salbatzeko.

Izen horiek oro (Jauna, Kristo, Mesias) girstinoek Jesusi ematen dizkiote.

Jestuak :

Golkoa jotzea :

Nere golkoa joz, eta ez beste batena, aitortzen dut nihaur bekatoros naizela.





Gloria : Jainkoaren go

Jainkoaren ospea aitortzen dugu erranez : “Gloria”
Otoitz honen hastapenak errepikatzen du aingeruen
kantua, artzainei eman zietelarik Jesusen sortzearen
berria.

Apezak : **Aintza** zeruetan Jaungoikoari

Guk : eta bakea lurrean haren gogoko gizoneri
Hain haundi ta eder zaitugulakotz, **gora zu**, benedikatua zu
Gorespen zuri, ahuspez agur, eskerrak zuri
Jainko Jauna, zeruko errege,
Jaungoiko Aita, **guziahalduna**.
Jauna, seme bakar, Jesu Kristo
Jainko Jauna, Jainkoaren bildots, Aitaren seme.
Zuk kentzen duzu **munduko bekatua**, Urrikal Jauna.
Zuk kentzen duzu munduko bekatua, Entzun gure deia.
Aitaren eskuin aldean jarririk zaude zu, Urrikal Jauna.
Zu bakarrik saindua,
Zu bakarrik Jauna,
Zu bakarrik Goi-Goikoa, Jesu Kristo,
Izpiritu Sainduarekin, Jainko Aitaren argitan. Amen

*Denek batean Jainkoa otoitzera gomitatzen gaitu apezak.
Honela amaitzen da otoitza :*

Apezak : Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez, zurekin eta Izpiritu
Sainduarekin batean, Jainko eta Errege bizi baita gizaldi eta gizaldi
guzietan.

Guk : Amen

Presmena egiten dugu.

Hitz azalduak :

Gloria :

Hitz horrek erran nahi du “pizua baduena”. Presuna baten hazta erakusten du. “Aintza zeruan” erraiten dugularik, gure bizian Jainkoaren garrantzia onartzen dugu. Otoitz hori batzuetan deitzen da “Gloria”, erran nahi baitu latinez “Loria, Ospe, Aintza”. Erromanoen mintzaira giristino guzien arteko mintzaira izan da XX. menderaino.

Laudorio egin, goretsi :

Kar haundiarekin norbaitez ongia erran, norbait laudatu, goraipatu.

Ahalguztiduna :

Jainkoa ahalguztiduna erraten delarik, erran nahi dugu bere maitasuna hain haundia dela non ez baitugu izartzen ahal.

Munduko bekatua :

Mundu guzian egiten den gaizkia (gerlak, pobrezia, goseteak, gizonak egin dezakeen gaizkia)

Izpiritu Saindua :

Jainkoak, Jesus bezala bizitzeko ematen digun biziaren hatsa.





Jainkoaren hitza

Hona orain **Biblia** liburuaren entzuteko momentua. Entzuten dugu egun gurekin solasean dagoen gure Jainkoa.

Irakurriko diren testuak segitzen ahal dituzu behatuz dagozkion igandeari.

Lehen irakurgaiak :

Jartzen gara.

Usaian, **lehen** irakurgai Testamentu Zaharreko testu bat da.

Ondotik, otoitz egiten dugu Salmo batekin.

Bigarren irakurgai ardura da apostolu batek lehen giristinoei idatzi duen gutun baten zatia.

Ebanjelioa edo Berri Ona :

Xutitzen gara eta kantatzen “Alleluia”.

BERRI ONAren zati bat entzuten dugu:

Apezak : Jauna zuekin

Guk : eta zure izpirituarekin

Apezak : Jesu Kristoren Ebanjelioa apostolu baten (Matiu, Mark, Luk, Joani) liburutik

Guk : Aintza zuri, Jauna.

Erhi pototsarekin egiten dugu kurutze seinalea kopetan, aho gainean eta bihotzaren gainean. Berri Onaren amaieran, apezak irakur-liburu saildua altxatzen du erranez.

Apezak : Jaunak errana

Guk : Eskerrak zuri, Jauna.

Homilia/ predikua :

Jartzen gara, apeza mintzatzen zaigu.

Laguntzen gaitu Jainkoaren hitzaren ulertzen eta gure bizian onartzen.

a entzuten dugu.

Hitz azalduak

BIBLIA :

Kristauen liburu saildua da. Testamentu Zaharrak kondatzen du nola Jainkoak egin duen Alianza/ Batasuna Juduen popularekin, Jesus sortu aitzin. Testamentu Berriak kondatzen du nola Jainkoak Jesus bere semearen bitartez Batasun Berri bat egiten duen gizon guzietan.

Salmoa :

Salmoak Biblian kausitzen diren otoitz kantatuak dira. Orotara ehun eta berrogeita hamar badira.

Alleluia :

Hebrear hitz horrek erran nahi du “Biba Jainkoa, Jainkoa esker dezagun”.

Ebanjelioa :

Hitz hau jatorriz grekoa da eta erran nahi du “Berri Ona”. Berri Onak dio Jesus bera gurekin bizi dela. Testamentu Berriko lau lehen liburuak (Matiu, Mark, Luk, Joani) deitzen ditugu “Ebanjelioa”. Ekartzen digute Berri Ona.

Jestuak

Kurutze seinalea egitea, kopeta, aho gainean, bihotzaren gainean erhi pototsarekin :



Berri Ona gure izpirituan finkatzeko, gure inguruan jakinarazteko eta bihotz-bihotzez bizitzeko.

Irakur-liburua altxatzea :

Hola eginez, apezak erraten du: “hona hemen Jainkoaren Hitza”. Gu baino lehen bizi izan diren giristinoek eman diguten liburua.





Gure fedea bai

Jainkoaren Hitza aditu dugu. Mundu guziko kristauekin, erantzuten dugu erranez : “sinesten dut !», latinez : “Credo”.

Gu xutitzen gara

SINESTEN DUT ¹ **JAUNGOIKO BAKARRA,**

Aita guziz ahaltsu, zero-lurren Egile,

ageri diren eta ez diren guziena.

Sinesten dut Jaun bat bakarra, **Jesu Kristo**, Jainkoaren seme bakar, mende guziak baino lehen Aita ganik sortua.

Jainkoa ganik Jainko, argitik argi, egiazko Jainkoa ganik, Egiazko Jainko.

Sortua, ez egina, Aitaren izaite berekoa,

haren bidez dira eginak gauza guziak.

Gu gizonen gatik eta gu salbatzeko, jautsi zen zerutik.

Eta Izpiritu Sainduaren egitez, Maria Birjina ganik

gorputz harturik, gizon egin zen.

Pontzio Pilatoren menpean gu gatik gurutzeratua izan zen oinazetan hila eta hobiratua.

Hirugarren egunean piztu zen, Liburu Sainduak erran bezala, zerura igan eta Aitaren eskuin aldean jarririk dago.

Aintzaz etorriko da berriz, biziak eta hilak jujatzera,

Eta haren Erregetzak ez du azkenik izanen.

Sinesten dut **Izpiritu Saindua**, Jaun eta bizi-emaile,

Aita ganik eta Semea ganik dena,

Aitarekin eta Semearekin batean

agur eta goresmen berbera hartzen duena,

eta Profeten ahotz hitz egin zuena.

Sinesten dut Eliza: bat, saindu, katoliko eta Apostoluena

Aitortzen dut bataio bakarra, bekatuak barkatzeko.

Igurikatzen dut hilen piztea, eta datorren munduko bizia

AMEN


¹ “Credo” hau idatzia izan da Nizeo eta Konstantinopleko kontzilioetan, IV. mendean.

eztatzten dugu.

Batzuetan, “Credo” laburrago bat erraten da, bigarren mendean idatzia. Deitzen da “Apostoluen sinboloa”.

SINESTEN DUT, Jainko Aita

botere guzia duena baitan, zeruaren eta lurraren kreatora, eta Jesu Kristo haren seme bakar, gure Jauna baitan, zoin kontzebitua izan baitzen Izpiritu Sainduaren bertutez. Sortu zen Maria Birjina ganik, pairatu zuen Pontzio Pilatusen manuaaren azpian, kurutzefikatu zuten, hil zen eta ehortzi zuten ; jautsi zen ifernuetara, hirugarren egunean jeiki zen bizirik hilen artetik, igan zen zeruetara, jarria dago Jainko Aita botere guzia duenaren eskuinean, handik etorriko da bizien eta hilen jujatzera. Sinesten dut Izpiritu Saindua baitan, Eliza Katoliko sainduan, sainduen partaliertasunean, bekatuen barkamenduan, haragiaren piztean, beti iraunen duen bizitzean. Amen.



Hitz azalduak :

Kurutzefikatua

Jesu hil da kurutzefikaturik, kurutze batean itzatua.

Pontzio Pilato

Jesu kurutzefikatzera manatu duen gobernadore erromanoa da.

Pasionea :

Hitz honek erran nahi du kurutze gainean Jesusek hil baino lehen, pasatu dituen azken egunak.

Piztea, hilen artetik jeikitzea

Iratzartzea, hilen artetik xutitzea. Jainkoak hiletarik Jesu piztu du. Bere Aitak bizi berri bat Jesusi eman dio.

Idazkiak

Kristauk (giritinoek) horrela deitzen dute Testamentu Zaharra.

Profetak

Biblian, Jainkoaren bozeremaileak dira.

Eliza

Grekoz, hitz horrek erran nahi du “biltzarra”. “Eliza” E larri, haundi batekin idatzia delarik erran nahi du giritinoen familia.

Katoliko

Grekoz, erran nahi du “unibertsala, orokorra”. Eliza munduko jende orori idekia da.

Apostolikoa

Apostoluen familiakoa.



Gizon guzientzat

Hona etorria gure galdeak Jainkoari egiteko momentua :
otoitz unibertsala da. Jainkoa otoizten dugu Elizarentzat,
erientzat, pobreentzat, dohakabeentzat, arduradun
politikoentzat.

Otoitz xede bakoitzaren ondotik, erraiten edo kantatzen ahal dugu otoitz hauetarik bat :

Guk : Onhar Jauna, egungo otoitza (2)

Gizonentzat, emazteentzat
Munduko zure haurrentzat,
Ospatzen zaituen Elizak
Helarazten dizu bere galdera.

**Entzun zazu Jaun haundia, zure haurren dei ezitia.
Artzain ona otoi beha, hau da zure artaldea (2).**

Jauna, zure Erreinua eraikitzeko
Izpiritua gure gainera igor Jauna



Otoitz egiten dugu.

Hitz azalduak

Galderak onartu, frantseses
“exaucer” :

Otoitz galdera entzun ondoan,
Jainkoak begi onez “on-hartzen”
du bakoitzak galdegiten diona.

Erreinua

Jainkoaren Erreinua ez da herri bat.
Bizi molde bat da.

Jainkoarekin bizitzen dugun bizia
da.

Jesusek dio Jainkoarekin bizi
garela elgar maite dugunean.

Galderak

Zergatik otoitz bat deitzen dugu
“unibertsala”?

Jainkoa otoizten baitugu, ez
bakarrik guretzat, baina ere
gure inguruan eta zero-lurretan
direnentzat.

Zergatik eskea?

Dirua elizen beharrak laguntzeko
(berotze, garbiketak, eta abar)
ematen duguna. Diru horrekin
beharretan direnak ere laguntzen
ahal ditugu.





Ogia eta arnoa Jainkoa

Jaunaren apairuaren ospatzeko mementoa etorria zaigu. Ogia eta arnoa aldare gainera ekartzen dira.

Apezak Jainkoari ogia eta arnoa aurkezten dizkio eta apezarekin batean Jainkoa benedikatzen dugu.

Jartzen gara. Apezak ogia hartzen eta altxatzen du erranez :

Apezak :

Benedikatua zu Jauna, zeru-lurren Jaungoikoa : zure esku zabaletik hartu dugu orain ekarri dautzugun ogi hau, lurraren indarrak eta gizonaren lanak sortua ; hauxe eginen zaigu biziaren ogi.

Guk :

Benedikatua zu, Jauna, orai eta beti.

Ura eta arnoa kalitzan ematen du apezak erranez :

Apezak :

Gure gizatasunarekin bat egin zena, uraren eta arnoaren bategite honen bidez, egin gaitzala bat bere jainkotasunarekin.

Apezak kalitza altxatzen du erranez :

Apezak :

Benedikatua zu, Jauna, zeru-lurren Jaungoikoa : zure esku zabaletik hartu dugu orain ekarri dautzugun arno hau, mahatsondoaren indarrak eta gizonaren lanak sortua : hauxe eginen zaigu betiko zorionaren edari.

Guk :

Benedikatua zu, Jauna orai eta beti.

Apezak ahapetik :

Onhar gaitzazu , Jauna, apal eta damaturik gaudenak, eta gure oparia, Jauna, atsegin daizula.

Apezak bere eskuak garbitzen ditu :

Apezak :

Haurrideak, egin dezagun otoitz guziek batean, Eliza osoaren oparia Jaun goikoari eskaintzerakoan.

Guk :

Jainkoa goresteko eta gizona salbatzeko

Honela amaitzen den otoitz bat irakurtzen du apezak, igande bakoitz desberdina.

Apezak : Jesus Kristo, gure Jaunaren bitartez

Guk : Amen

ri eskaintzen dizkiogu.

Hitzak ulertzeko :

Bedeinkatu :

Laudatu, norbaitez ongia erran.
Jainkoaganik ukaiten dugu ugari.
Ematen digunarengatik eskertuz
benedikatzen dugu Jainkoa.

Sakrifizioa

Jainkoak ez ditu nahi lehengo
mendeetan egiten ziren abere
opariak. Ez digu galdegiten kurutze
baten gainean hiltzea, Jesus bezala.
Galdegiten digu eskain diezaiogun
gure eguneroko bizia, opari eder-
eder baten gisa.

Mundua eta gizona salbatzeko :

Munduaren eta gizonaren osagarri
osoarentzat otoitz egiten dugu.

Jestuak :

Ogia eta arnoa ekartzea :

Ogia (ostia) ekarriz eta arnoaren
kalitza, Jainkoari eskaintzen
dizkiogu gure lanaren fruituak.
Eskertzen dugu ematen digun
biziarentzat.



Ur xorta bat arnoan ixurtzea :

Jestu horren
bidez, apezak
galdegiten dio
Jainkoari bat
egin ditzan bere
eta gure biziak.



Eskuak garbitzea :

Apezak Jainkoari galdegiten dio
izan dadin xuritiba, egin dituen
bekatuetatik izan dadin garbitua.





Jainkoa eske

Orain ematen digun biziarentzat Jainkoa eskertzen dugu. Esker onezko Otoitz Haundiaren hastapena da.

Apezak : Jauna zuekin

Guk : eta zure izpirituarekin

Apezak : gora bihotzak

Guk : Jaunari dauzkagu

Apezak : eskerrak Jaungoiko gure Jaunari

Guk : egoki da eta zuzen

Apezak besoak altxatzen ditu eta erraten :

Apezak : Bai egoki da eta zuzen guk, zuri, Aita guziz sailduari, eskerrak ematea nun-nahi eta beti, Jesu Kristo zure seme maitearen bitartez. Hura da zure Hitza. Haren bidez egin ditutzu diren guziak. Hura igorri daukuzu Salbatzaile eta Erosle, Izpiritu Sailduaren bertutez gizon egina, eta Birjinaganik sortua.

Harek zure nahia betetzeko, eta zuretzat herri saildu bat irabazteko, Kurutzean besoak zabaldu zituen, eta herioa ezeztatuz, nagusi agertu Piztean. Aingeru eta goi-aingeruekin, eta zeruko talde guziekin Zure aintzari goresmen hau beti ta beti kantatzen diogu :

Igande bakoitzaren arabera, otoitzak segitzen du molde desberdinean. Honela bururatzen da :

Apezak : Aingeru eta goi-aingeruekin, eta zeruko talde guziekin Zure aintzari goresmen hau beti eta beti kantatzen diogu:

Guk : SAINDU ! SAINDU ! SAINDUA !

Diren guzien Jainko Jauna!

Zeru lurak beterik dauzka zure distirak.

Hozana zeru gorenetan.

Benedikatua Jaunaren izenean datorrena.

Hozana zeru gorenetan.

ertzen dugu.

Hitz azalduak :

Eta zure izpirituarekin :

Erran nahi du : “eta zurekin ere”.

Gora bihotzak :

Urrunago, gorago behatu,
Jainkoaren maitasunari ideki.

Eskerrak eman :

Jainkoari milesker erraitea, emaiten
dizkigun guzientzat.

Aingeruak :

Biblian, misteriozko presunak
dira, Jainkoaren eta gizonen arteko
mezulariak dira.

Saindu eta sainduak :

Saindu hitzak erran nahi du Jainkoa
ez dela gizona bezalakoa :

Jainkoa perfekta da, hobe zina,
bikaintasun maila gorenekoa.
Bibliak erraten du Jainkoa
bakarrik dela saindua, baina
gizonak gomitatzen ditu bere
saindutasunean parte hartzera.
Hain zuzen, “saindu” deitzen
ditugu Jainkoaganik hurbil bizi
izan diren jendeak.

Hozana :

Hitz hori hebrearra da eta erran
nahi du: “txalo”. Jerusalemeko
bizilagunek “hozana” oihukatu
zuten, erramuak eskuetan, Jesusen
ospatzeko errege baten pare,
Jerusalem hiri nagusian sartu
zenean.





Jesu Kristorekin gure bizi

Jainkoari apezak galdegiten dio bere Izpirituaz ogia eta arnoa kontsekra ditzan. Eta hauek Jesu Kristoren gorputza eta odola bilakatuko dira.

Hamar esker oneko otoitz badira. Apezak usu hau erraten du :

Apezak : Saindu zira bai Jauna, eta saindutasun guziaren iturri.

Apezak ogia eta arnoaren gainean hedatzen ditu eskuak

Saindu egizkizu bada ogi eta arno hauk zure izpiritua ixuriz, Jesu Kristo gure Jaunaren gorputz eta odol guretzat egin ditezten.

Apezak *apezak ogia hartzen du :*

Berak saldu zutenean, eta bere gogoz Kurutzera zoala, ogia hartu eta, eskerrak emanez zatitu zuen, eta dizipulueri eman, erranez: “har zazue eta edan guziek huntarik: hau nere gorputza baita, zuentzat emanen dena”.

Apezak *apezak ogia altxatzen du. So egiten diogu eta gero burua ukurtzen dugu. Apezak kaliza hartzen du.*

Afal ondoan berdin, kalitza harturik, berriz ere eskerrak emanez dizipulueri eman zioten, erranez: “Har zazue eta edan huntarik, hau nere odolaren kalitza baita, batasun berri eta betikoaen odola, zuentzat eta guzientzat bekatuak barkatzeko ixuriko dena. Egizue hau nere oroitzarri”.

Apezak kaliza altxatzen du. So egiten diogu eta berriz burua ukurtzen dugu.

a Jainkoari eskaintzen diogu.

Hitz azalduak

Saindu egitea

Saindu bilakarazi

Opariak

Emaitzak, eskaintzak.

Batasuna

Bi presunek zernahi gerta ere, batasuna egiten dutelarik, elgarri konfiantza egitea hitzematzen dute. Giristinoek erraten dute: Jainkoak gurekin batasuna egiten du, gure Jainkoa da, haren populua gara.

Guzientzat

Mundu osoan den neurrigabeko populuarentzat

Bekatuak barkatzea

Jainkoak barkatzen digu.
Jainkoak erakusten du bere barkamena gure huts guziak baino haundiago dela.

Jestuak :

Eskuak zabaltzea

Jestu hau eginez, apezak deitzen du Izpiritu Saindua ogi eta arnoa kontsekratzera.




Ogia altxatzea

Apezak ostia eta gero kalitza altxatzen ditu populuak bat eginik Kristoren gorputza eta odola ikus eta adora ditzan



Ukurtzea

Errespetuzko eta adorazionezko jestu bat da.





Jesu Kristorekin gure bizi

Jainkoari galdatzen diogu gure biziak onhar ditzan eskaintza bat bezala. Galdatzen diogu ere bere Izpirituak bil gaitzan. Otoitz egiten dugu Elizarentzat, bizientzat eta hilentzat.

Sagara² ondoko goramena

Apezak : hau da **sinestearen misterioa**

Guk : hil eta piztu zirela Jauna, Zu berriz etorri arte, Hau dugu, hau, berri ona.

Edo

Ogi arno hauek hartzean, Zure heriotzea dugu aitortzen, Zu Jauna etorri artean.

Bazko mixterioaren oroitzapena

Apezak : horrengatik, Jauna, zure Semearen heriotza eta piztea **gogoan hartuz** biziaren ogia eta salbamenduaren kalitza eskaintzen dauzkizugu, zuri eskerrak emanez aldarean zure zerbitzari onhartu gaituzulakotz.

Batasun galdea Izpiritu Sainduari

Eta apalik eskatzen dautzugu : Kristoren Gorputz-odolak hartzen ditugunak Izpiritu Sainduak bat egin gaitzala.

Elizarentzat

Gogoan izan, Jauna, mundu guzian dagoen zure Eliza : eremazu maitasun osora, ... **gure aita sainduarekin, ... gure artzainarekin,** eta eliz-gizon guziekin batean.

Hilentzat

Gogoan izan ere Jauna, pizteko esperantzan joan diren gure haurrideak, eta hil guziak; har ditzazu zure aurpegiaren argitan.

Bizientzat

Urrikal zakizkigu, otoi : gu guziek **betiko bizia ardiets dezagun,** Jainkoaren ama, Maria dohatsuarekin, **apostolu sainduekin** eta gizaldi guzietan zure adixkide izan diren sainduekin; heiekin batera gorets zaitzagun, Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

DOXOLOGIA, Eskaintza eta goresmena

Honen bitartez, Honekin eta Honetan, Zuri Aita Jaungoiko guziahalduna, Izpiritu Sainduarekin batean, Ospe eta Aintza guzia, gizaldi eta gizaldi guzietan.

AMEN

²Kontsekrazioa: mezaren erdian apezak ogia eta arnoa Jesusen gorputz eta odol bihurtzen dituen unea.

a Jainkoari eskaintzen diogu.

Hitz azalduak

Sinestearen misterioa

Giristinoek sinesten dute Kristo piztu dela, betiko bizi dela, eta berriz etorriko dela munduaren akabantzan. Misterio hau haundia da.

Apezpikua :

Apostoluen segidakoa eta jarraikitzailea da. Diosesa batetako katolikoaren arduraduna da.

Gogoan har

Iragan gertakari batez oroitu eta beti egungoa dela aitortu.

Eskatu,

Hemen, gure indar guzietan dei egin.

Aita saindua

Apezpikuekin, Eliza Katolikoaren arduraduna da.

Apostolu :

Grekoz, hitz horrek erran nahi du “igorria”. Jesusek hautatu zituen hamabi **apostolu** bere laguntzarako eta Ebanjelioa (Berri ona) mundu zabalean hedatzeko.

Betiereko bizia :

Jainkoarekin bizitzea da; bizi hori osoki loratuko da gure heriotzaren ondotik.





“Gure aita”

Jainkoa gizon-emazte guzien aita dela Jesusek ezagutarazten digu. Eta Jainkoak “Gure Aita” deituz erakasten digu nola otoitz egin. Denek batean, erraten dugu edo kantatzen dugu otoitz hori.

Besoak zabaltzen ahal ditugu otoitz hau erraiten :

Apezak : Salbatzaileak manatu eta erakutsiari jarraikiz, beldur gabe erran/kanta dezagun :

Gure Aita zeruetan zirena,
Saindua izan bedi zure izena,
Etor bedi zure erreinua
Egin bedi zure nahia
Zeruan bezala lurrean ere
Emaguzu gaur egun huntako ogia
Barkatu gure zorrak
Guk ere gure zorduner barkatzen diegunaz geroz
Eta ez gu tentaldira eraman
Bainan atera gaitzazu gaitzetik.

Enbolizmoa : apezak, azken galdera arrahartzen du :

Atera gaitzazu, Jauna, gaitz guzietatik, emaguzu bakea gure egunetan. Zure urrikalmenduari esker bekatutik garbi bizi gaitezen eta hersturetan sendo, betiko zorionaren esperantzan, Jesu Kristo gure Salbatzailea noiz etorriko den zain gaudela.

Denek

**Zurea duzu erregetza
Zureak ospe eta indarra
Orai eta beti.**

”erraten dugu.

Hitz azalduak

Salbatzailea

Jesusi ematen diogun izen bat da, gaitzetik eta heriotzetik salbatzen gaituelako.

Zerua

Jainkoa ez da laino baten gainean jarria ! Baina Jainkoa, zerua bezala, mugarik gabea da eta misterioz betea.

Erreinua

Jesusek Jainkoa errege bati konparatu du eta erran du “Jainkoaren erreinua hurbildua da”. Alta Jainkoaren erreinua ez da erresuma bat, bizi molde bat da: Jainkoarekin eta elgarrekin maitasunean bizi garelarik.

Gure zorrak :

Gure hutsak eta bereziki gure maitasun eskasak dira.

Tentaldia :

Gaizki den zerbaiten, edo haizu ez den zerbaiten egiteko gutizia.


Noiz etorriko den Salbatzailea :

Ez dakigu noiz, baina etorriko da ospe haundienean.

Jestuak

Eskuak idekitzea

Lehenbiziko giristinoen jestua egiten dugu, hola baitzuten Jainkoa otoizten: xutik, besoak zabalik eta eskuak goiti so.





Kristoren bakea elg

Jainkoa gure Aita denaz geroz, denak Jesusen baitan anai-arrebak gara. Haurrideak garela erakusteko, apezak gomitatzen gaitu bake-jestu bat elgarri emaitera.

Apezak :

Jesu Kristo zuk errana da apostolueri: Bakea uzten dautzuet, nere bakea ematen. Beha zure Elizaren sinesteari, eta ez gure bekatueri. Eta zure gogo den bezala, emozu Elizari bakea, eman batasuna. Errege bizi baitzira gizaldi eta gilzaldietan.

Guk : Amen

Apezak : Jaunaren bakea beti zuekin

Guk : eta zure izpirituarekin

Apezak : anai-arrebak, Jaunaren izenean, eman bakea elgarri

Bakoitzak : Jaunaren bakea

Besteak : Amen

Apezak ostia zatitzean, kantatzen dugu :

Jainkoaren bildotsa, zuk kentzen duzu munduko bekatua, urrikal Jauna
(2)

Jainkoaren bildotsa, zuk kentzen duzu munduko bekatua, emaguzu
bakea.

elgarri emaiten dugu.

Hitz azalduak

Karitatea

Jainkoarengatik etortzen den maitasuna.

Jainkoaren bildotsa

Testamentu Zaharrean, fededunek bildotsak Jainkoari oparitzen, eskaintzen zituzten. Jesus deitua da “Jainkoaren bildotsa” bere bizia Jainkoari oparitzen edo eskaintzen diolako.

Jestuak

Elgarri eman Jainkoaren bakea :

besarkatzen gara edo eskuak elgarri emaiten dugu, Kristorengatik etortzen den bakea partekatzeko.





Jesu Kristo biziarek

Orain, komuniatzean, biziaren ogia hartuz, Jesu Kristoren bizi-
hazten eta indartzen gara.

Apezak ogia zatikatzen du eta erraten :

Huna hemen Jainkoaren bildotsa,
Huna munduko bekatua kentzen duena
Zorionsuak honen mahainera deituak

Denek batean :

**Jauna, ni ez naiz on zure etxean sartzeko
Bainan errazu hitz bat eta sendatuko naiz.**


Komunionea eginen dutenak aintzinatzen dira eta eskuak luzatzen :

Ostia emanez, apezak erraten du :

Kristoren gorputza

Komuniatu dutenek :

Amen



kin bat egiten dugu.

Galderak :

Zergatik haur batzuek ez dute komuniatzen ?

Lehen komunionea egin baino lehen, haur bataiatuak preparatzen dira. Ikasten dute nola Jesus hor den, gutartean eta ogiaren (ostia- ren) itxuran.

Zergatik deitzen da “ostia” mezan partekatzen dugun ogia ?

Hitz horrek erran nahi du oparia. Ostia kontsekratuaren bidez Jesu Kristok gizonei ematen die bere bizia.

Jestuak :

Ogia zatitu :

Apezak ostia hausten du Jesusek egin zuen bezala bere azken afarian.

Jesusek orduan azken aldiko ogia zatitu zuen apostoluei emateko. Lehenbiziko girstinoek meza deitu dute “ogi zatitzea”.



Komuniatzeko Jesus eskutan hartu
Ziril santuak (IV. mendean) erraten zuen : “Aintzinatzen zarelarik, egizu tronadura bat eskuinarekin, Erregea hartuko baituzu. Har ezazu Kristoren gorputza zure esku ahurrean eta erantzun: “Amen”.





Jainkoak etxera

Berri zonbait eman ondoan, apezak benedikatzen gaitu Jainkoaren indarra emateko. Bakoitza igorria da bere fedearen, aizinaren, jokoaren, lanaren partekatzerara aurkitzen dituen guziekin.

Apezak : Jauna zuekin

Guk : Eta zure izpirituarekin

Apezak benedikatzen gaitu : kurutzen seinalea egiten dugu.

Apezak : Benedika zaitzatela Jainko guziahaldunak
Aitak eta Semeak eta Izpiritu Sainduak.

Guk : Amen

Apezak : Zoazte Jaunaren bakean

Guk : Eskerrak Jainkoari

Meza bururatua da. Kantu bat emanez bereizten gara.



igortzen gaitu.


Hitzak ulertzeko :

Meza

Hitz hori heldu zaigu “missa” hitz latinetik, bera etortzen delarik beste hitz batetik, “mittere”, erran nahi duena “bidali, igorri”.

Erien komunioea

Mezan parte hartu dutenek etxean eri gelditzen direnei eukaristia ematen ahal diete. Apezak ematen die ostia kontsekratua ontzi tipi batean. Ontzi tipi hori deitzen da “kustodia”. Ordezkar horiek denek otoitza ere ekartzen diete.



Jestuak


Benedikatu :

Apezak egiten du gurutze seinale haundi bat biltzarraren gainean. Benedizio horren bitartez, giristinoak Jainkoaren indarraz eta maitasunaz estaltzen ditu. Gero Jesu Kristoren pizteaz lekuko izan daitezten.



Bereiztea

Ez gara beti gure artean, giristinoen artean bizitzen ahal. Besten artean bizitzeko behar dugu elgarren artetik bereizi. Mezan bildu den populua Jainko populuaren hazi bat da, eta hazi hori haundituko da.





Mezako gauzak

Patena

Ostia haundia edukitzen duen azieta tipiak.



Kalitza



Kopa honek arnoa edukitzen du.


Edalontzi tipiak, buretak :

Ontzi tipi horiekin arnoa eta ura apezari aurkezten dira.



Alba (eliza-mantarra)

Soineko luze eta xuri bat. Latinez



albak erran nahi du “xuri”.




Soinean, apezak ematen ahal du kapa haundi bat, “kasula”: latinez erran nahi du kaputxa duen soinekoa.

Estola

“Stola” hitz latinetik etortzen da, lepoko luze bat da.

Ziborioa

Ontzi sakratua, ostia kontsekratuak edukitzeko.



Tabernakula

Latinetik “tabernaculum”, etxola, armairu tipia ziborioaren ezartzeko.

Aldarea

Mahaina, mahain horretan ogia eta arnoa ezarriak dira. Apezak mahain horren aintzinean erraten du mezaren Otoitz Haundia.



Oharra

Gramatika sailean, ohartuko zarete testoa bi partetan moldatua izan dela :

Azalpenak euskara batuan apailatuak izan dira, liburu hau ikastolako haurrentzat egina baita, haatik,

meza testoaren bihotza edo muina «Igandetan elizan» liburutik ateratua izan da, deus aldatu gabe, erran nahi baita Lapurtar-Nafartarrez. Horrela haurrek mezan parte hartuko dute usaiaiko Iparraldeko Elizaren mintzairan.

Hautu hori eztabaidagarria da eta etorkizunean alda daiteke.

A Ithurbide
JC Iribarren
2009/03/18


HAURREN ESKER ONEZKO OTOITZAK BIGARRENA

Jauna zuekin...
Gora bihotzak
Eskerrak Jaungoiko gure Jaunari

*Eta zure izpirituarekin
Jaunari dauzkagu
Egoki da eta zuzen*

Bai, Aita guziz ona, pozik gaude zurekin : gure bihotzak esker onez beterik dauzkagu, eta Jesusekin gure zoriona kantatzen dautzugu :

Bai, maite gaitutzu : mundu haundi eta eder hau zuk egin duzu guretzat. Bai, maite



gaitutzu : Jesus zure semea eman daukuzu, gu zure ganat eremaiteko. Bai, maite gaitutzu : Jesusen baitan bat egiten gaitutzu, familia bereko seme-alabak bezala. Hoinbeste maite gaitutzulakotz, eskerrak emaiten daukitzugu, zeruan goersten zaitutzen aingeru sailduekin kantari :




Benedikatua izan bedi Jesus, ttipien eta behartsuen adixkide izaiteko zuk igorria. Bera hortarako etorri zen : guri erakusteko nola zu maita, eta nola elgar maita. Bera etorri zen, gizonen bihotzetik kentzeko adixkide izaitea debekatzen duen gaizkia, eta zoriona kentzen daukun herra. Berak hitzeman dauku, Izpiritu Saindua beti gurekin izanen dela, zure biziari bizi gaitezen.




Jainko gure Aita, igor-azu zure Izpiritua, **ogi eta arno** hauk Jesus gure Jaunaren **gorputz eta odol** egin ditezen. Berak, hil bezperan, zure maitasun neurrigabea erakutsi zaukun : bere dizipuluekin mahainean zagolarik, ogia hartu zuen eta otoitz bat egin, zu benedikatzeko, eta zuri eskerrak emateko ; zatitu zuen ogia eta heieri eman zioten, erranez : **Harzazue ta jan guziek huntarik : hau nere gorputza baita zuentzat emanen dena.**

Sagarako goramena :



KRISTO GU-RE-TZAT E- MA- NA .


Gero, kalitza arnoz betea harturik, otoitz egin zuen, zuri eskerrak emateko, eta kalitza eskaini zioten, erranez : **Harzazue ta edan guziek huntarik : hau nere odolaren kalitza baita, batasun berri ta betikoaren odola, zuentzat eta guzientzat bekatuak barkatzeko ixuriko dena.**



KRISTO GU-RE-TZAT E- MA- NA .

Eta gero erran zioten : **Egizue hau nere orroitgarri.**

Aita guziz ona, gogoan ditugu orai Jesus, munduaren Salbatzailearen heriotzea eta piztea. Bera eman zitzaikun, orai eskaintzen dautzugin opari izaiteko, eta gu zu ganat eremateko.



GO-RA ZU GORA ZU BENE-DIKA-TUA ZU ,



GORA ZU GO-RA ZU ESKERRAK ZU-RI !

Entzun gaitzazu, Jainko Jauna eta emaguzu zure maitasun-Izpiritua mahain huntan parte dugun guzieri, gero ta elgartuago bizi gaitezen zure Elizan gure aita sailduarekin, gure artzainarekin, beste artzainekin, eta zure herriaren zerbitzari guziekin.




GORPUTZ BAT GU-ZIAK ZU GORA-TZE-KO ,



GORPUTZ BAT GUZI-AK ZU GO-RATZEKO !

Gogoan izan, Jauna, maite ditugunak, baita maiteago izan behar gintuzkenak ere. Gogoan izan gure hilak... eta bizi huntarik bakean joan diren guziak : har ditzazu maitasunez zure etxean.



GORPUTZ BAT GU-ZIAK ZU GORA-TZE-KO ,




GORPUTZ BAT GUZI-AK ZU GO-RATZEKO !

Bil gaitzazu gu ere egun batez zure ondoan, Jesusen Ama eta gure Ama den Maria Birjinarekin, zure Erreinuan beti iraunen duen egun pozgarria ospa dezagun. Han, Jesu Kristo gure Jaunaren adixkide guziek beti goretsiko zaituzte :

Denek : Gorputz bat guziak, zu goratzeko Gorputz bat guziak, zu goratzeko.


Denek:



AINIZA ZURI JAUNA (AINTZA) JAUNA MAITE GAITUZU (MAITE)

AINIZA ZURI JAUNA (AINTZA) JAUNA MAITE GAITUZU .

Doxologia : Hunen bitartez, hunekin eta hunetan, Zuri, Aita, Jaungoiko guzialdenari, Izpiritu Sainduarekin batean, ospe ta aintza guzia gizaldi et gizaldi guzietan. **Amen.**



Sal-batzaileak manatu eta erakutsia- ri ja-rrai-kiz, bel-

dur ga- be e-rran de-za- gun :



GURE AITA, zeruetan zi-re-na : sain-du izan bedi

zu-re i-ze-na, etor be-di zu-re e- rrei-nu-a, egin


be-di zu- re na- hi- a, zeruan bezala lu-rre-an e- re.

E- ma- gu- zu gaur e- gun hun- ta- ko o- gi- a, bar-

ka- tu gu- re zo- rrak, guk ere gure zorduner barkatzen

di- e- gu- naz ge- roz, eta ez gu ten- tal- di- rat e- re-

man, bainan atera gai- tza- zu gai- tze- tik.





Arbonako eliza, XIII. mendekoa

Mezako lau memento haundiak

Meza lau momentu haundik osatzen dute. Liburuxkan baditugu ezagutgarriak beren izenekin : Biltzea - Hitza - Eukariztia eta Igortzea.



BILTZEA

- * Jaunak biltzen gaitu 4
- * Jainkoaren barkamena galdegiten dugu 6
- * Gloria : Jainkoaren goresmena egiten dugu 8



HITZA

- * Jainkoaren Hitza entzuten dugu 10
- * Gure fedea baieztatzen dugu 12
- * Gizon guzientzat otoitz egiten dugu 14



EUKARIZTIA

- * Ogia eta arnoa Jainkoari eskaintzen dizkiogu 16
- * Jainkoa eskertzen dugu 18
- * Jesu Kristorekin gure bizia Jainkoari eskaintzen diogu 20-22
- * Gure Aita erraiten dugu 24
- * Kristoren bakea elgarri emaiten dugu 26
- * Jesu Kristoren biziari komuniatzen dugu 28



IGORTZEA

- * Jainkoak etxerat igortzen gaitu 30
- * Mezako gauzak 32



Le magazine de Bayard pour l'éveil à la foi des 8-13 ans

Liburuxka hau norena da ?

.....

.....

.....

Illustrations : Louis Alloing